

**UDALEKUAK BERTAN BEHERA GERATU DIRENEZ, UDAKO ZAINITZA ZERBITZUAN IZENA EMATEKO EPE BERRIA ZABALTZEA ETA ZAINITZARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA PROPOSATU DU EAJ UDAL TALDEAK**

- **EAJ udal taldeak aurkeztutako proposamenak helburu du, batetik, umeen sozializazioa eta osasun emozionala, bestetik, familian euskaraz komunikatzeko aukera ez duten hurrek hizkuntzarekin kontaktua ez galtzea, zerbitzua bera aldatu den heinean horretarako izen-emate epe berria zabaltzea eta, azkenik, udako haurren oporraldiak sortzen dituen kontziliazio arazoak arintzea aiton-amonen kolektiboa arriskuan jarri gabe.**
- **EAJ udal taldeak udako zaintza zerbitzua osasun eta segurtasun berme guztiekin ematen dela bermatzeko hainbat txosten eskatu ditu.**

90. hamarkadan sortu zirenetik, Oñatiko udalekuek euskarazko aisialdi guneak eskaintzen dizkiete uztaileko Oñatiko ume eta gaztetxoei eta ohiko jarduera bilakatu dira gure herrian. Udalekuok abian jartzeko arrazoi nagusienetako bat izan zen euskararen erabilera sustatzea, nahiz eta azken urteotan kontziliazioa laguntzen duen zaintza-zerbitzu ere bilakatu den familia askorentzat.

2020ko udara begira, COVID-19a tarteko, Oñatiko udalak bertan behera utzi ditu udalekuak, eta zaintza-zerbitzua eskaintzea hobetsi du. Honen inguruan EAJ udal taldeak zenbait eskaera egin zituen maiatzaren 20ko batzordean:

1. Zaintza-zerbitzua zehaztea: zertan datzan, adina, lekua, datak, ordutegia, kostua...; familia onuradunek bete beharreko baldintzak; zer esan nahi den «kontziliazio arazo edo antzekoak dituztela demostratzea» esaten denean; udaleko zer teknikarik eta zer irizpideren arabera egingo den kasu bakoitzaren balorazioa eta erabakia; eta garrantzitsuena, nola bermatuko den ume horien osasuna, zer neurri hartuko diren osasun-arriskuak saihesteko.
2. Zerbitzuak osasun-neurriak betetzen dituela bermatzea Osasun arduradunaren txostenaren bidez.
3. Langileen kontratazioan begiraleen osasuna bermatzea eta Laneko Arriskuen Prebentzioa betetzea (arriskuen ebaluazioa eta horien prebentzio-neurriak jasotzen dituen prebentzio-teknikariaren txostenarekin).
4. Zerbitzu berri honi buruz Gaztedia teknikariak txostena aurkeztea; zerbitzu berria den heinean, teknikariaren iritzia zein den jakin beharko litzatekeelako.

EAJ udal taldearen iritziz, zerbitzua martxan jarri aurretik, gutxienez, txosten horiek bere esku izan beharko litzuzke Udalak, zerbitzuari buruz erabakiak berme guztiekin hartu ahal izateko. Jeltzaleen iritziz, COVID 19ak eragindako konfinamendu-aldiaren ondoren, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da haurrak eta gazteak gizarteratzea eta Oñatiko hurrek euskaraz gozatzeko aukera izatea jolas-, sormen-, parte-hartze, errespetu- eta dibertsitate-giroan, horregatik, ontzat ematen dute udaleku zerbitzua ematea arestian aipatutako berme guztiekin. Baina COVID 19a dela eta egoera aldatu denez, udaleku zerbitzuaren osagarri izango litzatekeen zaintzarako dirulaguntza lerro bat martxan jartzea proposatu dute jeltzaleek.

Horiek horrela, honako 4 puntuak jasotzen dituen proposamena aurkeztu du Oñatiko EAJ udal taldeak:

1. Udaleku irekiak egitea umeen sozializatorako eta osasun emozionalerako. Udaleku horiek bete behar dituzten **langileen eta erabiltzaileen prebentzio- eta osasun segurtasunerako neurriak bermatzea.**

2. **Txipistin zerbitzuan dauden umeak udalekuetan parte hartzea bermatzea.** Konfinamendua hasi zenetik, eta orain oporraldian, askok ez dute euskaraz komunikatzeko aukerarik izango eta komeni da hizkuntzarekiko harremana ez galtzea.
3. **Zerbitzu berriari izena emateko epea zabaldu:** alarma egoeraren eraginez izen-emate epea zegokiona baino lehenago eten zenez (martxoak 20 arte zen berezko epea), familia asko udaleku irekietan eta arte udalekuetan izen emateko aukerarik gabe geratu ziren eta ondoren, jakinarazi zen zaintza hezitzaile zerbitzua solik horietan izena emanda zeudenentzat eskainiko zela. Zerbitzu berria izanik aukera eman beharko litzaieke herriko ume guztiei izena emateko, horregatik, aste bateko epea zabaltzea proposatzen da izen-emate berriak egiteko.
4. Familien kontziliazio-arazoak bideratzeko, gurasoak lanera joan behar garelako eta aiton-amonen segurtasunagatik, horiek umeak zaintzea saihesteko, **dirulaguntza partida sortu, familiei zaintzaileak kontratatzen laguntzeko.** Zehazki, etxean adin txikikoak (0 eta 14 urte bitartekoak) eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko (kontratazio berria den edo lehendik dagoen bat den kontuan hartu gabe). Dirulaguntza jasotzeko derrigorrean kontratazioa legearen arabera izan behar da. Udalak, informazioa emango du kontratazioari buruz edo edozein informazioari buruz: funtzioak, zereginak, bajak, eskubideak eta betebeharrak. Horretarako Udalak begiraleen lan-poltsa sortzea proposatzen dugu.

Horiek horrela, EAJ udal taldeak aurkeztutako proposamenak helburu du, batetik, umeen sozializazioa eta osasun emozionala, bestetik, familian euskaraz komunikatzeko aukera ez duten haurrek hizkuntzarekin kontaktua ez galtzea, zerbitzua bera aldatu den heinean horretarako izen-emate epe berria zabaltzea eta, azkenik, udako haurren oporraldiak sortzen dituen kontziliazio arazoak arintzea aiton-amonen kolektiboa arriskuan jarri gabe.

**TRAS LA SUSPENSIÓN DE LAS COLONIAS, EL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV PROPONE ABRIR UN NUEVO PLAZO DE INSCRIPCIÓN PARA EL NUEVO SERVICIO SUSTITUTIVO, ASÍ COMO PONER EN MARCHA UNA LÍNEA DE SUBVENCIONES PARA EL CUIDADO**

- **La propuesta presentada por el grupo municipal EAJ-PNV busca garantizar la necesaria la socialización de niñas y niños y su salud emocional, que aquellas niñas y niños que no tienen la posibilidad de comunicarse en euskera en el entorno familiar no pierdan el contacto con el idioma, que en la medida en que se trata de un nuevo servicio se abra un nuevo plazo de inscripción para el mismo y aliviar los problemas de conciliación que genera el periodo vacacional de niños y niñas sin poner en peligro al colectivo de los abuelos.**
- **El grupo municipal EAJ-PNV ha solicitado varios informes para garantizar que el servicio se presta con todas las garantías sanitarias y de seguridad.**

Desde sus orígenes en los años 90, las colonias de Oñati ofrecen cada mes de julio espacios de ocio en euskera a los niños y niñas de Oñati y se han convertido en una actividad habitual en nuestro municipio. Una de las principales razones para su puesta en marcha fue la promoción del uso del euskera, aunque en los últimos años también se ha convertido en un servicio de cuidado que favorece la conciliación para muchas familias.

De cara al verano de 2020, debido a la COVID-19, el Ayuntamiento de Oñati ha suspendido las colonias y ha optado por ofrecer un servicio de sustitutivo de cuidado. A este respecto el grupo municipal EAJ-PNV realizó varias peticiones en la comisión de 20 de mayo:

1. Definición del servicio: en qué consiste, edad, lugar, fechas, horario, coste, requisitos que deben cumplir las familias beneficiarias, qué significa "demostrar problemas de conciliación o similares", qué técnicos municipales y en función de qué criterios se valorará y decidirá cada caso, y lo más importante, cómo se garantizará la salud de estos niños y niñas, qué medidas se tomarán para evitar riesgos sanitarios.
2. Garantizar el cumplimiento de las medidas sanitarias por parte del servicio mediante informe del responsable sanitario.
3. De cara a la contratación de los trabajadores, garantizar la salud de los monitores cumpliendo con la Prevención de Riesgos Laborales (con informe del técnico de prevención que recoja la evaluación de riesgos y sus medidas preventivas).
4. Informe de la Técnica de Juventud sobre este nuevo servicio, ya que como nuevo servicio se debería conocer su opinión.

El grupo municipal EAJ-PNV considera que, antes de la puesta en marcha del servicio, el Ayuntamiento debería disponer al menos de estos informes para poder tomar decisiones sobre el servicio con todas las garantías. Los jeltzales consideran que, tras el periodo de confinamiento provocado por la COVID 19, es necesario, más que nunca, que niñas, niños y jóvenes socialicen y que puedan disfrutar del euskera en un ambiente lúdico, creativo, participativo, respetuoso y diverso, por lo que darían por bueno el servicio de colonias con todas las garantías antes mencionadas. Debido a la nueva situación generada por la COVID 19, la formación jeltzale ha propuesto la puesta en marcha de una línea de subvenciones para el cuidado para complementar el servicio de colonias de verano.

Así las cosas, el grupo municipal EAJ-PNV de Oñati ha presentado una propuesta que recoge los siguientes 4 puntos:

1. Que se ponga en marcha el servicio de colonias abiertas para la socialización y salud emocional de los niños. Garantizar las medidas de prevención sanitaria de los trabajadores y usuarios.
2. Garantizar la participación de los niños del servicio Txipistin en las colonias de verano. Desde el inicio del confinamiento, y ahora en periodo vacacional, muchos no podrán comunicarse en euskera y conviene no pierdan la relación con el idioma.
3. Abrir un plazo de inscripción en el nuevo servicio: dado que el estado de alarma obligó a interrumpir el plazo de inscripción de las colonias antes de lo que correspondía (hasta el 20 de marzo era el plazo natural), muchas familias no pudieron realizar la inscripción en las colonias abiertas y en las colonias de arte y, posteriormente, se informó de que el servicio sustitutivo se ofrecería a los inscritos en las mismas. Al tratarse de un nuevo servicio se debería dar la oportunidad a todos los niños y niñas del municipio de inscribirse, por lo que se propone abrir el plazo de una semana para realizar nuevas inscripciones.
4. Para aliviar los problemas de conciliación de las familias cuyos progenitores tengan que trabajar y para que por su seguridad se evite que la tarea del cuidado recaiga sobre los abuelos, crear una partida de subvenciones para ayudar a las familias a contratar cuidadores. En concreto, para el cuidado de menores en el hogar (de 0 a 14 años) y personas dependientes (independientemente de que se trate de una nueva contratación o de que exista). La contratación para ser subvencionada debe ajustarse a la legalidad. El Ayuntamiento informará sobre la contratación o sobre cualquier información: funciones, tareas, bajas, derechos y obligaciones. Para ello proponemos que el Ayuntamiento cree una bolsa de monitores.

La propuesta presentada por el grupo municipal EAJ-PNV busca garantizar la necesaria la socialización de niñas y niños y su salud emocional, que aquellas niños y niñas que no tienen la posibilidad de comunicarse en euskera en el entorno familiar no pierdan el contacto con el idioma, que en la medida en que se trata de un nuevo servicio se abra un nuevo plazo de inscripción para el mismo y aliviar los problemas de conciliación que genera el periodo vacacional de niños y niñas sin poner en peligro al colectivo de los abuelos.